


Euskal AEko industri jarduera %3,8 hazi zen 2004ko irailean

2004ko lehenengo bederatzi hilabeteko bilakaerak %4,8ko hazkundera izan zuen, 2003ko aldi beraren aldean.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004ko irailean, %3,8 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, urte arteko tasan. Balio homogeneotan, egutegiaren eragina zuzenduta, urte arteko aldakuntza %3,8ra iritsi zen. 2004ko lehenengo bederatzi hileko hazkunde metatua %4,8an kokatu zen balio absolututan, eta %3,6an balio homogeneotan.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



Iturria: EUSTAT

2004ko irailean, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *garraio-materiala* (%17,6), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%14,0), *larruaren eta oinetakoen industria* (%9,9), *papera, edizioa eta arte grafikoak* (%8,5) eta *makineria* (%7,0) arloei, besteak beste. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *ehungintza eta jantzigintza* (%-26,5), *ez-metalezko industria* (%-17,9), *petrolio finntzea* (%-11,3) eta *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-10,9) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan, aurreko urteko aldi beraren aldean, hazkunde-tasa handienak sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%23,2), *petrolio finntzea* (%12,2), *material elektrikoa* (%10,1), *kautxua eta plastikoa* (%6,4) eta *garraio-materiala* (%6,2) arloei, besteak beste. Tasa negatiboak, berriz, honako hauek besterik ez zituzten izan: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-14,4%), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-10,9), *ez-metalezko industria* (%-10,5), *bestelako manufakturak* (%-6,3), *ehungintza eta jantzigintza* (%-3,3) eta *elikagai-industria* (%-0,5) arloek.

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenean, 2004ko irailean, igo egin ziren *energiaren* urte arteko tasa (%6,1), *ekipo-ondasunena* (%8,2), *bitarteko ondasunena* (%2,1) eta *kontsumo-ondasunena* (%1,7), *kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* (%4,2) igoerak eraginda, *kontsumo-ondasun iraunkorrak* (%-2,5) jaitsi egin baitziren.

Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan, balio absolututan, *energiak* %20,0ko hazkundera metatu zuen, *bitarteko ondasunek* %3,8koa, *ekipo-ondasunek* ere %3,8koa eta *kontsumo-ondasunek* %0,6koa. Azken horiek honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %-1,4ra iritsi ziren eta *ez-iraunkorrak* %1,6ra.

Lurralde historikoka, Indize Orokorraren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan zituzten; balio absolututan, %9,4 hazi zen Araban, %3,8 Bizkaian eta %0,6 Gipuzkoan. Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan hazkunde metatuaren tasa handienak Arabak (%8,5) lortu zituen, ondoren Bizkaia (%4,6) eta azkenik Gipuzkoak (%3,0).

Taula: 2004ko IRAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004		2003	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	3,8	3,8	2,7	0,3
Araba	9,4	9,4	1,5	-1,2
Bizkaia	3,8	3,8	3,2	1,0
Gipuzkoa	0,6	0,6	2,7	0,2
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	1,7	1,7	-1,1	-3,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-2,5	-2,5	-4,3	-7,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,2	4,2	0,9	-1,4
Ekipo-ondasunak	8,2	8,2	-1,1	-3,4
Bitarteko ondasunak	2,1	2,1	1,6	-0,7
Energia	6,1	6,1	27,4	25,7

(*) egutegiaren eragina zuzenduta

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp